

Aurkezpena

2012. urtean zehar, gure III. plan estrategikoari buruz hausnartu dugu, hurrengo lau urteei begira.

60 bazkide eta langile baino gehiagok hartu dugu parte plan estrategiko hori egiten: lantaldeak osatu ditugu, eta, lantalde horiei esker, 2013-2016 plan estrategikoa egin dugu. Zenbait hilabetez, saio bateratuak egin ditugu. Saio horietan, azken plana ebaluatu dugu, bai eta barne- eta kanpo-diagnostikoa egin eta etorkizunerako erronkak zehaztu ere.



Zuzendaritza Batzordeak eta Zuzendaritza Taldeak bideratu dute prozesua, eta La Salleko Ekintzen Sareko Animazio Taldearen laguntza jaso dugu.

Bost hilabetez aritu gara prozesu horretan lanean, eskema honen arabera:



Etorkizun zehaztea

Misioa

Elkarbanatuz elkarte bat dator La Sallaren hezkuntza-misioarekin, eta lanean ari da gizarte justuago bat eraikitzeko, gizarte-aldaketaren bidez eta gizarte-egoera ahulean daudenei gizarte- eta hezkuntza-laguntza emanez.

Ikuspegia

Gizarte-erakunde bat izatea, La Sallaren oinarriekin bat datorrena, eta gizarte aldaketa eta erreferente bat izatea gizarte-egoera ahulean daudenekin egiten den gizarte- eta hezkuntza-lanari dagokionez.

Balioak

- Erlijio-artekotasuna, barnetasuna eta kultura-artekotasuna sustatzen duen kristau-aukera
- Gizarte-egoera ahulean dauden pertsonentzat eta pertsonekin lan egitea
- Elkartasuna
- Senidetasuna
- Erantzunkidetasuna
- Eraginkortasuna
- Lankidetzatza
- Berrikuntza

Asociación Benéfico Asistencial Elkarbanatuz

Avda. Madariaga nº 69 • 48014 Bilbao
Tel. 94 475 75 43 - 617 966 377 • Fax: 94 475 01 51
info@elkarbanatuz.org • www.elkarbanatuz.org

1. ERRONKA

Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea sendotzea. Esku-hartze horrek kalitatezkoa izan behar du, eta arduratu egin behar da gure esku-hartzearen xede diren gizarte-egoera ahuleko pertsonen gizarte-premiez.

HELBURUAK

- Hezkuntza-prozesuetan laguntzea, esku-hartzearen zeharkakotasuna baliatuta, taldeen arteko harremanak eta diziplina-aniztasuna sustatuz.
- Banako Arreta Plana (BAP), gure eredu komuna, ebaluatzea eta hobetzea, dimentsio pertsonalak berriro aztertuz eta plana pertsona horien gizarte-errealitatera egokituz.
- Egoitzatako hezkuntza-programak egokitzea, egoera ahuleneko gazteen behar berrietara, pobrezia-mailara eta gizarte- eta heziketa-premiatara.
- Lanbide-heziketarako gure eredu sendotzea, profesionalen kualifikazioaren esparruan.
- Pertsonen enplegarritasuna hobetuko duten bide berriak sortzea.
- Hezkuntzari lotutako esku-hartzea egokitzea, adin txikikoen eta haien familien beharretara.

2. ERRONKA

Arreta gizabanakoarengan jarriz esku hartzera bultzatzea. Esku-hartze horrek sustatu egin behar du gure programetan parte hartzen dutenen erantzunkidetasuna eta ahalduntzea.

HELBURUAK

- Erabiltzaileen partaidetza sustatzea eta sistematizatzea.
- Erabiltzaile ohiei lekua ematea, entitatearekin lotuta jarraitu eta haren egitekoan parte har dezaten.
- Gure programatan parte hartzen dutenen burujabetzarako eta autonomiarako heziketa indartzea.
- Gure lan-prestakuntza programatan parte hartzen dutenei enplegua lotzeko aukera areagotzea.
- Egoera ahuleneko haurrei eta gazteei emandako gizarte- eta hezkuntza-laguntza sendotzea, garapen pertsonala sustatuz.
- Emakumeen ahalduntze-programak garatzea, eragile biderkatzaile gisa.
- Beharrian gero eta handiagoei erantzutea, laguntza-programen eta programa osagarrien bidez pobrezia-maila arintzeko.

3. ERRONKA

Gizarte justuago, bateratuago eta solidarioago bat sustatzea eta eraikitzen parte hartzea, eta jendartea sentsibilizatzea horren inguruan.

HELBURUAK

- Gizartearen aldaketarekin eta kohesioarekin inplikaturik dagoen eta elkarriketarako gaitasuna duen hirugarren sektore baten partaide izatea eta hura sustatzea.
- Egoera bidegabean aurrean, sentsibilizazioa, salaketa eta gizartearen partaidetza sustatzea.
- ARLEP barrutiko Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen Koordinakundearen lana sustatzea eta bultzatzea.
- Sektoreko Hezkuntza Ekintzen Sarearekin koordinatuta lan egitea, gure inguruko gizarte- eta hezkuntza-beharrizanei erantzuteko.
- Boluntarioen partaidetza aktiboa eta konpromisoa sustatzea, gure proiektuetan.

4. ERRONKA

Nazioarteko, gizarte- eta hezkuntza-arloko eta garapene-ko proiektuekin lankidetzan jardutea; zehazki, gure proiektuekin lotura duten haurrek eta gazteek pairatzen dituzten injustizia-egoerak aldatzeko lan egiten duten proiektuekin.

HELBURUAK

- Garapenerako Hezkuntzaren zeharkakotasuna gure tokiko proiektuetan txertatzea, nazioarteko lankidetzaren esperientzia oinarri hartuta.
- Parte-hartzea eta erabiltzaileen konpromisoa sustatzea, partaide garen nazioarteko proiektuetan.
- Profesionalen arteko elkartrukeari jarraipena ematea, ezagutzei, esperientziei eta, gure lanaren esparrua dela eta, hurbileko egiten zaizkigun errealitatei dagokienean.
- Egungo nazioarteko lankidetzaren hitzarmenei eustea.
- Proyde-Proegarekin lankidetzan aritzea, garapenerako lankidetzarako salestar erakundea den aldetik.
- Gure lan-esparruko nazioarteko lankidetzaren foroetan parte hartzea.

5. ERRONKA

Bermatzea oinarri sozialak (bazkideek, langileek eta boluntarioek) osatzen duela elkarte eta oinarri soziala misioarekin bat datorrela.

HELBURUAK

- Elkarguneak eta erakundea osatzen dutenen haurridetasuna erraztuko dituzten espazioak eta jarrerak sustatzea.
- Oinarri sozialak Erakundearen parte hartzeko mekanismoak garatzea.
- Bazkide, langile eta boluntario berriak gurera biltzea.
- Salestar prestakuntza instituzionala sustatzea.
- Etika- eta boluntarioritza-batzordeak eguneratzea eta indartzea.

6. ERRONKA

Epe ertainean eta luzean iraungo duen elkarte bat eraikitzea.

HELBURUAK

- Kudeaketa-zikloa indartzea eta garatzea
- Finantza- eta ekonomia-egonkortasuna erdiestea
- Kanpoko zerbitzuen kudeaketan, eraginkortasuna sustatzea
- Langileen prestakuntza jarraiturako plangintza garatzea
- Erakundearen kalitatea garatzea
- Berdintasunerako plangintza garatzea
- Zeharkakotasunez lan egingo duten taldeak garatzea, operatibitatea eta eraginkortasuna helburu hartuta
- Gure prestakuntza-programatan proiektu berriak txertatzearen bideragarritasuna aztertzea
- Ezagutzaren kudeaketa sustatzea
- Berrikuntza sistematizatzea.